

Bezeroekiko harremanak

Osasun-ohitura aplikazioak erabiltzaileekin harreman pertsonalizatua, jarraitua eta konfiantzan oinarritua izatea du helburu. Harreman mota nagusia autonomia baina lagundua izango da: erabiltzaileek aplikazioa modu independentean erabiliko dute, baina adimen artifizialaren bidez etengabeko laguntza eta orientazioa jasoko dute.

Aplikazioak erabiltzaileen datuak eta ohiturak aztertzen ditu, eta horren arabera aholkularitza pertsonalizatua, gomendio eguneratuak eta motibazio-mezuak eskaintzen ditu. Horrez gain, jakinarazpen adimendunen bidez, erabiltzaileei euren helburuak gogorarazten zaizkie eta ohitura osasungarriak mantentzera bultzatzen dira.

Bezeroen asebetzea bermatzeko, iritzi-kanalak eskainiko dira (inkestak, balorazioak eta iradokizunak), aplikazioa etengabe hobetzeko. Halaber, laguntza teknikoa eta informazio gehigarria eskuragarri egongo dira, erabiltzaileen zalantzak edo arazoak azkar konpontzeko.

Helburua da erabiltzaileek Osasun-ohitura lagun digital fidagarri gisa sentitzea, epe luzera osasun eta ongizate hobea lortzen lagunduko diena.